

ERANSKINA

"SOLASKIDE 2024-25" PROGRAMA

1. Deialdiaren xedea.

1.1. Programa Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako A, B eta D ereduetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, eta 2024-25 ikasturteko 2025eko urtarritik ekainera bitartean egingen da.

2. Programaren deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. Programaren helburua Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako A, B eta D ereduetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen euskaraz hitz egiteko gaitasunaren garapena indartzea da, 2024-25 ikasturtean, 2025eko urtarritik ekainera bitartean.

2.2. Programaren bidez, ahozko adierazpena indartzeko jarduerak egin nahi dira, euskararen ahozko erabilera baloratzeko eta ikasleen adierazpen-gaitasuna hobetzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuko Euskararen Gaitasun Titulua (EGA) edo hizkuntzaren ezagutza-maila egiaztatzeko beste proba batzuk prestatzeko jarduerak ere bai, curriculum-jarduera interesgarriak izan arren, irakaskuntza arautuan ohikoak ez direnak.

2.3. Talde bakoitzeko 7 saio emanen dira. Saioak 125 taldetan emanen dira, eta irakasleekin koordinatzeko saio

bat izanen da. Horretarako, Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek taldeko ikasle guztiak banatuko dituzte, eta, hizkuntza aditu batekin batera, talde osoari arreta emanen diote. Banaketa egin ahal izateko, taldeak 12 ikasle izanen ditu gutxienez. Irakasleak adituarekin batera taldea zaintzen badu, taldeak 30 ikasle izanen ditu gehienez ere. Baina inola ere ez da salbuetsiko irakaslea irakaskuntza-ordu horiek ematek.

3. Eskaera egiteko epea eta modua.

Deialdia web orri hauetan argitaratuko da:
www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es.

Ikastetxe bakoitzak nahi adina talde eskatu ahal izango ditu. Taldeak ez dira 30 ikasle baino gehiagokoak izanen, eta, ahal den neurrian, talde naturalei eutsiko zaie.

Ikastetxeek web-inprimaki baten bidez egingen dute eskaera. Inprimakia aipatutako web orrietan argitaratuko da 2024ko azaroan. Hezkuntza Departamentua, erakunde esleipendunarekin lankidetzan, taldeak esleitzeaz arduratuko da, deialdian ezartzen diren irizpideen arabera, eta talde horiek egingo direla bermatuko du, ikastetxe eskatzaile bakoitzeko maila batean gutxienez. Ikastetxe bakoitzeko talde kopurua jasotako eskaera guztien kopuruaren arabera izanen da.

Ikastetxeko Euskal Hizkuntza eta Literatura Mintegiko irakasleak, esleitutako taldeak zehaztu ondoren erakunde esleipendunarekin, eta Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak

gainbegiratuta, hizkuntza adituarekin harremanetan jarriko dira jarduera bi aldeen artean antolatzeko. Eskolen barruko saioen ordutegia ikastetxeak eta hizkuntza adituak adostuko dute, taldeak esleitu ondoren.

Ikastetxe bakoitzari esleitutako talde kopurua ikastetxeak egindako eskaera kopuruaren, eskaera orokorraren eta inskripzio-ordenaren arabera izanen da.

4. Hautaketa-batzordea eta esleipenerako baremoa.

4.1. Hezkuntza Departamentuak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, kide hauek izango dituen:

Presidentea: Euskara Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua, edo hark eskuordetzen duena, eta Euskara Ataleko irakasle-aholkulari bat.

4.2. Hautaketa-irizpideak eta baremoa:

- Inskripzio-ordena hartuko da kontuan.
- Ikastetxe bakoitzeko talde-kopurua jasotako eskabide guztien kopuruaren arabera izanen da.
- Programa honek eskaintzen dituen 125 taldeak baino eskaera gehiago jasoz gero:

- o Ikastetxe bakoitzean gutxienez talde bat egingen dela bermatuko da.

- o Lehentasuna izanen dute ikastetxe publikoek (plazen %20 itunpeko ikastetxeentzat gordeko da).

5. Esleipena ebaztea eta jakinaraztea.

5.1 Hautaketa Batzordeak txanden behin-behineko esleipena bere web orrian (www.educacion.navarra.es) eta www.navarra.es helbidean argitaratuko du, eta une horretatik aurrera egutegiko 7 eguneko epea egonen da horren aurkako erreklamazioak aurkezteko.

5.2. Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko esleipena aipatutako web orrietan argitaratuko da.

6. Irakasleen eginkizunak.

6.1. Parte hartzen duten ikastetxeek programaren balorazio idatzia egingen dute, eta Euskara Atalari helaraziko dizkiote ondorioak. Atal horrek enpresa esleipendunari helaraziko dizkio ondorioak, horrek azken memoria egin dezan, eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean entregatuko du 2025eko ekainaren 30a baino lehen.